

galdera 1

asier gogortza



iluntasunean erantzun 1,2, ...


ZU noraezean joan zaitezke baina baita norabidean ere.

Barrena argitzearen norabidean, argitasun zurian, zubian barna.

Lainoen artetik zu/bila, zuriaren bila.

Baliteke, materia ezaren edo ezerezaren aurkakoaren aurkikuntzan.

Zertarako?





sentitzeko
behatzeko
frogatzeko
ikertzeko
aditzeko
maitatzeko
galdetzeko
pentsatzeko
aurkitzeko



Lanbro artean hegan egin txori itsu baten eran.
Euri artean igeri egin oroimena duen arrain baten moduan.
Kate estuen artean goritu burnia su geldo eta baketsu baten antzera.
Gosearen artean bete platera ereindako hazien lur gardenetan.

kanpoaldea barrenera dakarren kamera dakarkigu



Kontrako norantzan, kontrako norabidean. Kontran.

Zulo beltzean edo gailur zurian,
azpian edo goian;
zalantzan dantzan banintzan...
hots egin!





galdera 1